

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

##### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Behin betiko onestea Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamabosgarren aldakuntza, Santa Maria katedralaren plan gidariaren esparruaren mugaketa aldatzeko**

Hau erabaki zuen udalbatzak 2020ko uztailaren 24an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamabosgarren aldakuntza, Santa Maria katedralaren plan gidariaren esparruaren mugaketa aldatzeko.

#### Erabaki-proposamena

Urriaren 7an, Erdi Aroko Hiriguneko BIPBaren hamabosgarren aldakuntzaren proposamena jaso zen, zein katedralaren plan gidariaren esparruaren mugaketa aldatzeko baita.

Oroitidazkian eta dokumentazio grafikoan jasotakoaren arabera, hauxe da aldakuntzaren xedea:

Katedralaren plan gidariaren esparrutik kanpo uztea Hedegile kaleko 116ko eta Txikita kaleko 22ko lursailek eta Txikita kaleko 20ko espazio libreak eraturako multzoari, zeintzuk garai bateko Arkeologia Museoari baitagozkio.

Ekipamendu generiko sailkapena ematea, anizkunaren orde, bizitegietarako lursailei.

Espazio librearen kategoria aldatzea: moldagarria (eraberritzeari lotua) kategoria izatetik hirigintza balio historiko kategoria (birjartzeari edo berria ezartzeari lotua) izatera pasatzea.

Urriaren 10ean, proposamena tramitera ez onartzeko txostena egin zen, eta aurtengo azaroaren 25ean proiektu berria erregistratu da, eta udaleko zerbitzu teknikoek horren aldeko txostena egin dute.

Residencia Palacio de la Burullería S. L-k aurkeztutako proiektuak honela justifikatzen du Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren aldakuntza hau:

BIPBaren mugaketaren baitan badago ezaugarri propioak dituen esparru bat: Santa Maria katedralarena. Eredu hori ez da jarraitua; Santa Maria kantoia bi aldeetan dauden 4. eta 5. etxadiak eta 9. etxadiko lursail bat –Hedegile kaleko 116koa– hartzen ditu barne. Esparru horretan Santa Maria Katedralaren plan gidaria aplikatzea eskatzen du BIPBak.

Egiaztatu ahal izan da Plan Gidari honen edukietako batzuek zailtasunak sortzen dituztela Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko Hirigunearen interesak hobetzeko eta zerbitzurako tresna gisa.

Proposatutako aldakuntzek bi alderdiri eragiten diote:

1. Kudeaketa: Egungo gauzatze-unitatearen mugaketa berria proposatzen da, bere mugaketatik ateraz erabilera xehatu gisa kultural - erlijioso izateari utzi eta orokorra izatera pasatzen diren lursailak.

Proposamen honen bidez, Hedegile kaleko 116.eko lursaila egungo gauzatze-unitatetik kanpo geratzen da, etxadi desberdinean dagoen bakarra delako eta bere garapenak ez duelako inolako loturarik Katedralaren plan gidariaren interesekin.

2. Erabilera: Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko BIPBaren seigarren aldakuntzaren oroitidazkiko 1.7 atalean — aldakuntzaren beharraren eta egokitasunaren justifikazioa— hala jasotzen da: Erabilera xehatuetak bati orokor deitzen zaio. Hitz hori ez dagokio BIPBri, indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorretik dator. Plan horretako definizioaren arabera, ekipamendu orokorraren barruko edozein erabilera xehatu da orokorra, ikuskizunetakoa izan ezik. BIPBan, anizkun hitza da horren baliokidea. Horrenbestez, HAPOarekin bat etortzeko, “anizkun” hitzaren ordez “orokor” jarriko da BIPB guztian.

Hedegile kaleko 116ko lursailak erabilera orokorreko erabilera xehatua izango du, eta bere espazio libre publikoa espazio libre pribatua izango da.

Udal teknikariek idatzitako oroitidazkian hauek agiri dira: xedea, komenigarritasunaren eta egokitasunaren justifikazioa, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa, eragin akustikoaren azterlana egiteko premiarik eza, eragin soziolinguistikorik eta genero-eraginik eza, baita indarrean dagoen planeamenduari eta aldatuari dagozkien hirigintza-araudia, antolamendu- eta kudeaketa-eremuak eta dokumentazio grafikoa ere.

Ingurumen-tramitazioari dagokionez, udal zerbitzu teknikoek jakinarazi dute Estatuko Ingurumen Ebaluazioaren Legearen eta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Legearen arabera aldakuntza ez dagoela ingurumen-ebaluazioari lotua, ez baitu plan edo programa baten izaera, ezpada plan baten aldakuntza batena —oso txikia, xedeari nahiz esparruari dagokionez—, eta ez planak ez horren aldakuntzak ez baitute legez ingurumen-ebaluazioaren menpe egon behar duten proiektuak aurrerago baimentzeko esparrurik ezartzen, eta ez diote eragiten lurzoru urbanizaezinari, ezta Natura 2000 Sareko edo nazioarteko hitzarmenen edo natura-ondareari edo biodibertsitateari buruzko oinarritzko legediaren edo autonomia-erkidegoko natura zaintzeko legediaren aplikazioz emandako arau-xedapen orokorren ondorio den ingurumen-babesaren arloko inongo erregimeneko espazioei ere.

Zortasun aeronautikoei dagokienez, dosierrean jaso da Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak idatzitako aldeko txostena. Txostena 2020ko martxoaren 11n erregistratu zen udalean.

Txostenak eskatu zaizkie Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eta Santa Maria Katedrala Fundazioari.

Aurtengo maiatzaren 21ean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aldeko txostena jaso da. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi duenez, Gobeo-Landazuri-Gebara jauregia (Hedegile kalea, 116) Santa Maria Katedralaren Plan Gidariaren esparrutik kanpo uzteak ez dio eragiten haren ondare-balioei, ezta, a priori, ekipamendu orokorraren erabilera berriari ere, eta oso positiboki balioesten du higiezia eta hari lotutako espazio librea berrerabiltzeko ekimena, hori baita bermerik onena multzoa kontserbatzeko eta balioa agerian jartzeko. Dena dela, Gobeo-Landazuri-Gebara jauregia birgaitzeko etorkizuneko esku-hartzeak bete egin beharko du azaroaren 18ko 281/2003 Dekretuaren III. eranskinean babes ertaineko kultura-ondasunetarako aurreikusitako babes-araubidea. Dekretu horren bidez, Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa monumentu-multzo kategoriko kultura-ondare gisa kalifikatzen da, eta bere babes araubidea eta Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean aurreikusitako kultur ondareak babesteko araubide orokorra eta berariazkoa finkatzen dira.

Aurtengo ekainaren 11n, Santa Maria Katedrala Fundazioaren txostena jaso da. Ekainaren 11n, Katedrala Fundazioak jakinarazi du bidezkoa dela plan gidariaren esparrutik kentzea Andararren dorrea, garai bateko museo arkeologikoa (aldaketa honen xede den eraikina) eta Santa Maria plaza, eta bertan mantentzea bolatokia, Aiztogile kaleko eraikina (katedralaren etxadian), Santa Maria kantoia, Buruileria plaza eta Frai Zacarias Martínez kalean atariaren mendebaldeko fatxadari lotuta dagoen bi metro eta erdiko zoru-zerrenda.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko apirilaren 3an egindako bilkuran eman zitzaion onespena planari, eta hasierako onespena Plan Orokorraren hasierako aldakuntza horri, idatzitako proiektuarekin —dosierrean jasota dago— bat etorritz.

2020ko maiatzaren 18an argitaratu zen erabakia ALHAOn (55. zk.), baita El Correo Español-El Pueblo Vasco egunkariaren 2020ko maiatzaren 21eko Arabako edizioan ere, eta hogeiei egunez egon da jendaurrean jarrita aldaketari buruzko dokumentazioa. Denbora horretan entitate edo pertsona interesdunek ez dutenez inolako alegaziorik aurkeztu, izapidearekin aurrera jarrai daiteke.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua eta edukia, eta 95., 96. eta 97. artikuluetan arautzen plan partzial eta berezien tramitazioa eta onespena.

Eusko Jaurlaritzaren Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketan erregimen juridikoa, eta orobat zehazten du birgaitze-jarduketan kontzeptua.

317/2002 Dekretuaren 10. artikuluan daude araututa birgaitze-plan bereziak, eta plan berezien motetako bat direla adierazten, lurzoruaren erregimenaren eta hiri-antolamenduaren arloan indarrean dagoen araudiaren ildotik, eta delako legean eta hori garatzen duten araudietan nahiz horiek ordeztzen dituzten arauetan xedatutakoari lotuak daudela, baita dekretuan bertan berariaz adierazitakoari ere.

Birgaitze-plan bereziak hiri-antolakuntzaren tresna xehatuak dira, birgaitze integratuko eremu bat deklaratzeko dosierra abiarazi den hiri-lurzoruko eremuetan plan orokorren edo arau subsidiarioen kalifikazio globalaren zehaztapenak garatzeko, eta, beren zehaztapenen artean, aipatutako dekretuaren 10.1 artikuluan definitutako administrazioaren ekintza berezia osatzen duten neurriak planifikatzeko aukera emango dutenak jaso behar dituzte.

10. artikulua horretan adierazten denez, administrazioaren ekintza bereziak hiri-ehuna babestea, kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea dakarten birgaitze babestuko jarduketak hartzen ditu barne, baita perimetroan dagoen ondare urbanizatu eta eraikia balioestea eta egokiago erabiltzea ere, horrela, dagoen populazioa mantentzea, bizi-baldintzak hobetzea eta, bereziki, etxebizitzaren kalitatea hobetzea eta komunitatearen ekipamenduak eta aurreko helburuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak indar daitezela lortzeko.

Aldatzeko erabakia hartzeko eskumenenari gagozkiolarik, udalbatzari dagokio hirigintza-legedian aurreikusitako planen eta gainerako tresnen udal tramitazioari bukaera emango dion onespena, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen —Tokiko Gobernua Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i) artikuluan ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorritz, dosierrean parte diren hirigintzako agiriek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 122.4.a) artikuluan —abenduaren 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak gehitua— aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

#### Erabaki-proposamena

1. Behin betiko onespena ematea Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamabosgarren aldakuntzaren proiektu xehatuari, Santa Maria katedralaren plan gidariaren esparruaren mugaketa aldatzeko, dosierrean jasota dagoen proiektuarekin bat etorritz.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

Dosierreko dokumentazio teknikoaren esteka honetan dago eskuragarri: [www.vitoria-gasteiz.org/peri1-15modif](http://www.vitoria-gasteiz.org/peri1-15modif)

#### Aldatutako araudia

**10. artikulua.** Santa Maria Katedraleko Plan Zuzentzailea. Antolamendu- eta Kudeaketa-eremuak. Jarduketa-programa ordenazio planoan seinalatutako eremuaren barruan Santa Maria Katedrala Fundazioak formulatutako Santa Maria Katedrala Plan Zuzentzailea proiektua aplikatuko da, plan berezi honek 4. eta 5. Etxadietan, bien artean dagoen Santa Maria Kantoia barne, dauden eraikin eta espazioetarako ezarritako aplikazio-zehaztapenen laguntzarekin.

**68. artikulua.** Erabilera bereizgarriak. Lurzatiaren mailan, bizitegi-erabilera izango da, honko hauetan izan ezik.

##### 1. Ekipamendu komunitario.

###### 1.1. Hezkuntzakoak

- Eskolak, 12 y 14 (Ramón Bajo Ikastetxea)
- Luis Aramburu Udaleko Musika Eskola (Hedegile 106)
- Aurtxaro Haurtzaindegia (Santa Maria Kantoia s/n)

###### 1.2. Administrazioak

– Errementari, 30-32 eta Zapatarari Kaleko 33. Zenbakiko behe solairua eta lehenengo solairuko zati bat.

- Villa Suso (Aihotz Plaza)
- Udaletxea ( Espainia Plaza, número 1)
- Echanove Etxea. Santa Maria Kalea, 11
- Errementari, 96-98 (Behe solairuak)

###### 1.3. Asistentziala

- Hedegile, 54 y 56 (Aurora Etxea handipena)
- Hedegile, 55 y 57 (Aurora Etxea Tutoretzapeko Apartamentuak)
- Hedegile, 58 (Aurora Etxea)
- Arkupeko Ibilbidea 11 (Arkupe Erresidentzia)
- San Pedroko Pasabidea 5 y 7 (Behe solairuak) San Pedro Zentro Soziala

###### 1.4. Erlizkoak

- Santa Maria Katedrala eta Santa Maria Eliza
- San Pedro Eliza
- San Miguel Eliza
- San Vicente Eliza
- Gurutze Santuko Komentua.
- San Ildefonso Kapera

### 1.5. Kultura – Elkartek

- Otxanda Dorrea (Natur Zientzien Museoa)
- Farolen Etxea (Zapatari, 35)
- Campillo Zentro Soziala (Santa Maria, 4)
- Montehermoso Jauregia (Fray Zacarías Martínez kalea, 2)
- Ur Biltegi Zaharra (Fray Zacarías Martínez kalea, Eskola kalea)
- Bendaña Jauregia eta Aiztogile 54 bis y Arkeologia Museo berria.
- Errementari, 82 (Siervas de Jesús Fundatzailearen Museo Etxea)

### 1.6. Kultura - Erlijioa

- 4. Etxadiko Eraikinak (Aiztogile 85tik 103ra biak barne)
- Anda Dorrea (Gobeo – Guevara – San Juan Jauregi-Etxea)

### 1.7. Orokorra

- Musika eta Arte eta Lanbide Eskola zaharrak (Eskolak, 110)
- Fray Zacarías Martínez 3 (Magisteritza Eskola zaharra)
- Hedegile kalea, 141 (Maturana-Verástegui Jauregi Etxea, M. del Fresno).
- San Vicente de Paúl kalea, 2 – 15. Etxadia (Babes-etxe zaharra)
- Cuchillería 85 a 103 ambos inclusive
- Hedegile 116

### 2. Ekipamendu Orokorreko Tolerantzia duten Bizitegiak

- Hedegile, 108 (Osasun Zentroa)
- T Etxadia
- Aiztogile, 24 (Kordoi Etxea)
- Errementari 33
- Arkupeko Ibilbidea 1020

### 3. Bizitegi-Tertziarioa

3.1. Jauregi-eraikuntzen erabilera aldaketa. Eraikinaren erabilera aldaketa onartzen du, bizitegi erabileratik tertziarioa eta bizitegitik tertziario-bizitegira. Borondatez bizitegi-erabilerari osotasunean edo erabilera tertziarioari atxikitzea onartzen du, bai eta erabilera mistoko tarteko egoerak ere.

- Errementari 22 A (Muebles La Oca)
- Errementari 24 y 26 (Álava – Esquivel Jauregia)
- Errementari 23 (Aduana Etxea)
- Errementari 27 (Marqués de la Alameda Jauregi-Etxea)
- Zapatari 101 (Álava-Velasco Jauregi-Etxea)
- Mateo Moraza, 1, 3, 5 y 7
- Mateo Moraza, 23
- Aihotz Plaza 1, 3, 4, 5, 6, 7 y 8

- Aiztogile 24 (Kordoi Etxea)
- Pintore, 68 (Gobeo Etxea)
- Fray Zacarías Martínez, 9.1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 y 8

3.2. Oinarrizko Babeseko elementuen erabilera aldaketa. Aurreko ataleko erabilera-aldaketa bera onartzen du oinarrizko babeseko elementu gisa katalogatutako eraikinetan, baldin eta ez badira iristen aplikazio hirigintza arautzeko ordenantzari jasotzen den gehieneko altuerara, plan berezi honetako 5. antolamendu-planoaren arabera, eta antolamendu planoetan adierazita.

3.3. Lehentasunezko Esku-hartzerako eremuak (ZIP) sortzea. Erabilera aldatzea. ZIP sortzea elementu diskordanteetan erabilera aldatuz edota eraikitako azalera handituz. (Berritzeko FI-Cetan bakarrik onartzen da erabilera aldaketa Bizitegitik Tertiariora. Muga: ehuneko 50 Bizitegi – ehuneko 50 Tertiario).

3.4. Eskola kaleko eraikuntza erabilera aldaketa. San Francisco Javier kantoieko eta Eskola kaleko egikaritze unitateak berritzeko eraikuntzako esku-hartze moduan bakarrik, eta betiere borondatez; bizitegi-erabilerari osotasunean edo erabilera tertziarioari atxikitzea onartzen du, bai eta erabilera mistoko tarteko egoerak ere.

#### 4. Tertiario

- Hedegile, 147 (El Portalón)


#### 5. Campillo Sur Plan Zuzentzailea

Campillo Sur Plan Zuzentzailearen erabilerak hirigintza araudi honetako 75. artikuluan ezarrita daude.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 29an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**

O-3 CATALOGO DE ESPACIOS LIBRES  
O-3 GUNE LIBREEN KATALOGOEA




CATALOGO DE ESPACIOS LIBRES / A°:51 N.U.  
GUNE LIBREEN KATALOGOEA / A°:51 N.U.

FORMAS DE INTERVENCION CONSTRUCTIVA  
ERAKITZE ESKU-HARTZE ERAK

- VALOR HISTORICO URBANISTICO MAXIMO  
BALIO URBANISTIKO HISTORIKO MAXIMOA
- VALOR HISTORICO URBANISTICO  
BALIO URBANISTIKO HISTORIKOA
- ADAPTABLE  
MOLDAGARRIA


- CONSERVACION / A°:54 N.U.
- REFORMA 7 A°:55 N.U.
- REPOSICION / NUEVA IMPLANTACION / A°:56 N.U.
- ESPACIOS LIBRES DE DOMINIO PUBLICO Y USO RESTRINGIDO  
(CAÑOS MUNICIPALES)

- KONTZERBAZIOA / A°:54 N.U.
- BIRGAITZEA 7 A°:55 N.U.
- BIRJARTZE / BERRI EZARPENA / A°:56 N.U.
- JABETZA PUBLIKOKO GUNE LIBREAK ETA ERABILERA MUGATUA  
(UDAL ETXARTEAK)






O-8 DETERMINACIONES DE ORDENACION DE EDIFICIOS Y ESPACIOS LIBRES ALINEACIONES Y RASANTES (NORTE)  
 O-8 ERAIKIN ETA GUNE LIBREEN LERROKATZE ETA LUR-ARRASEEN ANTOLAMENDUEN ZEHAZTAPENAK (IPARRA)




<b>ESPACIOS LIBRES</b>	<b>GUNE LIBREAK</b>		
	PLAZAS, CALLES Y JARDINES		PLAZAK, KALEAK Y JARDINAK
	CAÑO MUNICIPAL ACTUAL ( MAS INCORPORACIONES DE CONSTRUCCIONES, PATIOS y/o HUERTAS . RECUPERACION DE LA POSESION DE LOS BIENES DE DOMINIO PUBLICO )		CAUR EGUNGO UDAL ETXARTEA ( ERAIKIN , PATIO ETA IEDO ORTUEN GEHITZEA . JABETZA PUBLIKOKO ONDASUNEN BERRESKURAKETA )
	JARDINES Y PATIOS DE OBLIGATORIO MANTENIMIENTO		BEHARREKO MANTENUKO JARDIN ETA PATIOAK
	PATIO INGLES A CAÑO		ETXARTEKO PATIO INGLESA
	ESPACIO LIBRE VINCULADO AL <b>P. D. C.</b> ( PLAN DIRECTOR CATEDRAL )		GUNE LIBREA KATEDRALAREN GIDA PLANERA LOTUTAKOIA
<b>ACTUACIONES 1984 – 28 FEBRERO 2005 VIGENCIA PERI 1984 – 2005 OTSAILAK 28 JARDUKETAK</b>			
	EDIFICIO CON REHABILITACION INTEGRAL PRIVADA		BIRGAITZE OSOKO ERAIKIN PRIBATUA
	EDIFICIO CON REHABILITACION PARCIAL PRIVADA		BIRGAITZE PARTZIALKO ERAIKIN PRIBATUA
	EDIFICIO CON REHABILITACION PUBLICA INTEGRAL : EQUIPAMIENTO / RESIDENCIAL		BIRGAITZE OSOKO ERAIKIN PUBLIKOIA: EKIPAMENDUA/ BIZITEGI
<b>CATALOGO DE LA EDIFICACION ERAIKINEN KATALOGOA</b>			
	EDIFICIOS DE CARACTER ESTRUCTURAL / ELEMENTOS DE PROTECCION MEDIA		EGITURA IZAERAKO ERAIKINAK / BABES ERDIKO ELEMENTUAK

O-11 AMBITOS-ORDENACION  
O-11 PLANGINTZA EREMU



	UNIDAD DE ACTUACION DIRECTA UNIDAD BASICA	JARDUKETA UNITATE ZUZENA UNITATE BASIKOIA	PROGRAMA DE ACTUACION 2C - SEGUNDO CUATRIENIO	JARDUKETA PROGRAMA BIGARREN LAURTEKOA
	UNIDAD DE EJECUCION COMPUESTA, RESIDENCIAL (PRIVADA) (PROGRAMADAS O NO PROGRAMADAS)	EJEKUCIO UNITATE BATERATUA, BIZITEGI (PRIBATUA) (PROGRAMATUAK EDO EZ PROGRAMATUAK)		
	UNIDAD DE EJECUCION COMPUESTA, TERCIARIO/RESIDENCIAL (PRIVADA) (NO PROGRAMADAS - ACCIONES VOLUNTARIAS)	EJEKUCIO UNITATE BATERATUA, TERTZIARIO/BIZITEGIA (PRIBATUA) (EZ PROGRAMATUAK - BOLONDREZKO JARDUKETA)		
	UNIDAD DE EJECUCION PUBLICA RESIDENCIAL (PROGRAMADAS)	BIZITEGEN EJEKUCIO UNITATE PUBLIKOA (PROGRAMATUAK)		
	UNIDAD DE EJECUCION PUBLICA DE EQUIPAMIENTO (PROGRAMADAS O NO)	EKIPAMENDUEN EJEKUCIO UNITATE PUBLIKOA (PROGRAMATUAK EDO EZ)		
	UNIDAD DE EJECUCION DE ESPACIOS LIBRES (AL INTERIOR DE MANZANAS)	GUNE LIBREEN EJEKUCIO UNITATEA (ETXEBLOEKEN BARNEALDEA)		
	UNIDAD DE EJECUCION PUBLICA DE ESPACIOS LIBRES	GUNE LIBREEN EJEKUCIO PUBLIKOEN UNITATEA		
	APLICACION EXCEPCIONAL DEL APARTADO 2 DEL ART. 17 DEL DECRETO 312/97 DE 23 DE DICIEMBRE ( COMBUNTO MONUMENTAL Y REGIMEN DE PROTECCION DEL CASCO HISTORICO DE VITORIA-GASTEIZ )	ABENDUKO 23 KO 312/97 DEKRETUAREN 17. ARTIKULUAREN 2 ATALAREN APLIKAZIO BEREZIA ( VITORIA-GASTEIZKO ALDE ZAHARRERKO BARRES ERREGIMENA ETA MULTZO MONUMENTALA)		

O-12 PROPUESTAS DE ORDENACIÓN  
O-12 ANTOLAMENDU PROPOSAMENA



(GRANDES LINEAS ESTRATEGICAS EN LAS DIFERENTES AREAS TEMATICAS)

- A - SISTEMA LIBRE
  - A5 - RECUPERACION DE ESPACIO LIBRE PUBLICO PARA CONSOLIDACION DE ENTORNOS SINGULARES. (PLAN DIRECTOR CATEDRAL)
- B - SISTEMA EDIFICADO
  - B11 - READECUACION DEL FRENTE DEL PORTAL DE ARRIBACA
- C - SISTEMA DE EQUIPAMIENTOS
  - C1 - PLAN DIRECTOR CATEDRAL DE SANTA MARIA. PDC
  - C5 - OTROS EQUIPAMIENTOS
    - E. A1 (ASISTENCIAL EN COORDINACION)
    - E. M (MULTIFUNCIÓN EN COORDINACION)
    - E. A (ADMINISTRATIVO EN HERBERIA, 30-32)
    - E. C (CULTURAL-ASOCIATIVO EN HERBERIA, 8,2)
- D - SISTEMA DE COMUNICACIONES Y TRANSPORTES

(ARLO TEMATIKO DESBERDINEN LERRO ESTRATEGIKO HANDIAK)

- SISTEMA LIBREAK
  - A5 - GUNE PUBLICO LIBREEN BERRESKURAKETA GUNE BEREZIEZ BERMAGUNTZARAKO (KATEDRALAREN PLANGINTZA ZUZENA)
- ERAKITAKO SISTEMAK
  - B11 - ARRIBAKO ATARIAREN AURRUKALDEAREN EGOKITZAPENA
- EQUIPAMENDUEN SISTEMA
  - C1 - SANTA MARIA KATEDRALAREN ZUZENIKO PLANGINTZA
  - C5 - BESTE EQUIPAMENDUAK
    - E. A1 (ASISTENZIALA HEBERIA, 35)
    - E. M (ANBUKUNA HEBERIA, 14)
    - E. A (ADMINISTRAZIOKOA EBREMENTAR, 30-32)
    - E. C (KULTURA-ELKARTEAK EBREMENTAR, 8,2)
- KOMUNIKAZIO ETA GARRAIO SISTEMAK